

**Gurasoek euskararen erabilera zelan bultzatu euskararen normalizazioan. Irakasleen eta udalaren lana.**



Idoia Bazako eta Pili Ikazuriaga

## **Aurkibidea**

1. Lan honen justifikazioa.
2. Familiak euskararen transmisioan duen garrantzia.
3. Udalak ere badu zeresana euskararen erabileran .
4. Gurasoen eta eskolaren arteko harremana.
5. Irakasleen eginbeharrak. Euskara familian bultzatzeko proposamenak eta era askotariko materiala, irakasleek gidatuta.
6. Bibliografia.

## 1- Lan honen justifikazioa

Euskararen erabileraz hitz egiten dugunean, jende gehienari irakaskuntza datorri burura. Izan ere, irakaskuntza da euskara ezagutzeaz eta erabiltzeaz arduratu den esparrurik handiena .

Euskarak funtzio nagusietarako balio duela ikusi behar du hiztunak: haurrak, adibidez, ikusi eta sentitu behar du euskarak eskolarako, etxeko harremanetarako, jolaserako, lagunarterako, eta abarrerako balio duela; hau da, baliozko tresna dela sumatu behar du txiki-txikitik. Horretarako, euskal hiztunen kontzientzia sendotzetik hasi behar da, haurtzaroko bizipen horiek nortasunean itsatsirik geldituko direlako. **Eskolaren** lana da, gaur egun, haurraren hiztun-kontzientzia hori piztea, eta euskara esparru guztietan baliagarri dela erakustea eta irakastea.



Baina irakaskuntza-munduan bada indarra eta zeregina duen beste esparru bat ere, berebiziko eragina duena: familia. Esparru horri, sarritan, ez zaio behar besteko garrantzirik ematen. Eta, hain zuzen ere, familiaren garrantzia zertan den zehaztu nahi genuke txosten honen bidez. Izan ere, ikasturtean zehar ikasleak ordu kopururik handiena familiaren esparruan ematen du.

Bestalde, zutabe garrantzitsu bat geratzen zaigu: udala. **Udalak** ere badu zeresana, herriarekin eta bertako **familiekin** duen harremanetatik. Izan ere,

udaletik antolatu behar dira hainbat ekimen familientzat (guraso eta seme-alabentzat).




## 2- Familiak euskararen transmisioan duen garrantzia

Lasarteko Udaleko Iñaki Arruti euskara-teknikariak dioen legez —eta beheko taulan agertzen den legez—, ikasleek ikasturteko denborarik gehiena **familiaren** ardurapean ematen dute, eta horrek ondorioak ditu hainbat arlotan. Kontu hori gure gaian ere aintzat hartu behar dugu, familiak eta eskolak zer eragin izan dezaketen ulertzeko\*. Izan ere, ikasleek egun bateko ordu kopuruaren % 15 ematen dute bakarrik eskolan, baina gainerako denboran familiak pisu handia dauka; familiaren esku gelditzen diren beste bi esparru esanguratsuak —gelatik kanpoko eta eskola gabeko egunak— eskolaren ildo beretik joanez gero,

indarrak batuko dira helburu hau errazago lortzeko: euskara eskolatik kanpo ateratzea.

\*



Familia bidezko transmisioa izan da beti edozein hizkuntza bizirik irauteko oinarriko mekanismoa. Ezaguna da euskarak Hego Euskal Herrian izan dituen urterik zailenetan familian euskaraz hitz egiteak garrantzi izugarria izan duela; agian, erabakigarria. Beraz, esan daiteke hizkuntzek irauteko bide nagusia belaunaldiz belaunaldiko transmisioa dela, batez ere familia bidezkoa, hizkuntzari eustea eta hura normalizatzea horretan oinarritzen baita, neurri handi batean.

Hizkuntzaren normalizazioaz ari garenez, euskara erabiltzea dugu, jakina, helburu nagusi. Euskara ama-hizkuntza izateak ziurtatzen du familiaren bidezko jarraipena. Euskara familia bidez transmititzeak, beraz, lehentasuna du euskara erabiltzeko berreskuratze-prozesuan, bai hiztunak ez galtzeko, bai hiztun berriak irabazteko.

Gazteak eskolan euskalduntzeko, hizkuntza-politikak batez ere ezagutza-mailan izan du eragina, baina ez horrenbeste erabileran. Askotan, eskolaren bidez euskara ikasi duten gazteek ez dute euskara erabiltzen hortik kanpo. Etxean euskara lehen hizkuntza modura ikasi dutenek, berriz, euskara

eremu gehiagotan erabiltzen dute. Izan ere, J. Fishmanek dionez, hizkuntzaren transmisioa, hizkuntza horren sozializazioari lotuta dago, eta hori gertuko komunitatean gauzatzen da. Familia eta auzoa ditugu eguneroko bizitzatik hurbil: bi esparru horiek eusten diete ondoen hizkuntzari eta talde-kontzientziari.

Ezin dugu ahaztu kultura baten transmisioan beste kontu batzuk ere hartu behar direla aintzat. Gurasoek euskara irakasteaz gain, beren izaera eta ohiturak ere transmititzen dituzte etxean.

Egun, gizartearen zati bat elebiduna izanda, eta bestea, erdalduna, transmisioaren berezko bidea (gurasoengandik seme-alabenganakoa) eta kultura-bidea (eskola nagusiki) ondo uztartu behar dira. Gaur egun, euskal elebakar gutxi geratzen da; hortaz, euskararen erabilera elebidunen esku dago. Eta elebidun izan daiteke euskara ama-hizkuntza duena edo eskolaren bidez ikasi duena.

Gurasoen artean era askotariko pertsonak aurkituko ditugu. Argi dago guraso guztiei ezin zaiela inplikazio bera eskatu, eta pertsona bakoitzak inplikazio-maila jakin bat ezarriko duela.

Transmisioari dagokionez, esan daiteke euskara hobeto transmitituko dela gurasoak euskaldunak badira; ondoren, euskalduna ama bakarrik bada; eta, azkenik, euskalduna aita bakarrik bada. Gainera, euskara ona transmititzeko, euskara ondo ezagutu behar da; hau da, euskara kaskarra erabiliz gero, ezinezkoa izango da ezagupen maila handirik transmititzea. Gurasoen eragin efektiboa, bada, oso garrantzitsua da. Gogoan izan behar dugu lehen hizkuntza ondo menperatzea ezinbestekoa dela bigarren hizkuntza ondo barneratu eta garatzeko. Gurasoen lehen erantzukizuna haien ama-hizkuntza ondo transmititzea izango da. Ezagutza horri kontzientzia linguistikoa gehitzen badiogu, hau da, afektiboki eman dezaketena gehitzen badiogu, euskararen erabilera handiagotu egingo da.

Gurasoek euskaraz ez badakite, etxean ezin dute euskararen transmisioa bermatu; baina horiek kontzientzia linguistikoa izatea, hau da, hizkuntzarekiko afektibotasuna seme-alaben aurrean adieraztea, baldintza garrantzitsua izango da. Beraz, gurasoak inplikatzeko aurrerapauso ikaragarria da.

Era berean, ama-hizkuntza euskara duen edo eskola bidez elebidun egiten ari den belaunaldi berriak euskara hurrengo belaunaldiari transmititzen ez badio (eta horrela belaunaldi berriaren ama-hizkuntza bihurtu), euskal elebidun berririk sortu ezinean ibiliko gara, eskolak bakarrik ez dituelako sortuko.

Laburbilduz, hizkuntza biziberritzeko ez da bakar-bakarrik hizkuntza eskuratu eta eskolan erabili behar; horrez gain, gizartean erabiltzea eta belaunez belauneko transmisioa areagotzea ere bada, eta, horretarako, familia ezinbestekoa dugu.



### **3- Udalak ere badu zeresana euskararen erabileran**

Familia zutabe garrantzitsua bada ere, udalak badu zeresana eta zeregina euskararen erabileran.

Udalean dagoen euskara-teknikaria izango da lan horren arduraduna; horrek herriko hainbat eragilerekin izango ditu harremanak, eta, nola ez, herriko ikastetxeekin; izan ere, hasieran esan dugun legez, eskolaren eta udalaren arteko harremana ezinbestekoa da euskararen erabilera kalera

hedatzeko. Elkarren osagarri izateak (udala / ikastetxeak) berebiziko garrantzia hartzen du, eta familian sustraitu den euskararen erabileran eragile bihurtuko dira. Udala benetako eragilea izateko, beharrezkoa da hainbat ekimen bideratzea, hala nola, ezagunak ditugun ospakizunak: Liburuaren Eguna, Euskararen Eguna, Agate Deuna...; baita bidea erraztea ere, herritarrek eguneroko bizitzan euskara erabili dezaten. Horretarako, alegia, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) abian jartzeko, garrantzitsua da diru-laguntzak izatea.

Ikastetxeak EBPNaren barruko atal direnez gero, eskolaz kanpoko ekintzak hein batean udalaren ardurapean daude. Izan ere, eskola barruko jardueren jarraipen dira, eta horietan ere euskararen presentzia bermatu behar da.

Bestalde, udalak, euskara-teknikariaren gidaritzapean, herriko bizitzan euskararen presentzia neurtuko du, lekuan lekuko diagnosis egiteko. Horrek EBPN eratzen lagunduko du, baina, ahalik eta biztanle gehienen inplikazioa bultzatzeko, herriko talde antolatuekin bilduko da: ikastetxeetako guraso-elkarteak, musika-eskola, kirol taldeak, herriko akademiak, eliza-taldeak, abesbatza, emakumeen elkarteak, jubilatuen taldea,...; izan ere, umeek, gazteek eta adinekoek euskararen normalizazio-prozesuan eginkizun garrantzitsua bete dezakete. Hori horrela izanik, ume eta gazteek ez dute pentsatuko euskara bakarrik ikastetxeari lotutako zerbait dela: euskara izango da kaleko eta gizarteko hizkuntza, eta, komunikatzeko ez ezik, gozatzeko ere baliatuko dute, kirolari, musikari eta haien gustuko ekimenekin lotuko dute-eta.



Guztien helburua euskara gehiago erabiltzea denez, bilera horiek herriko zenbait eragile koordinatzeko erabiliko dira, eta erabaki bateratuak hartuko dira, gero nork bere lantokian aplikatzeko (norbanakoaren

inplikazioa bilatuko da).

#### 4. Gurasoen eta eskolaren arteko harremanak





Etxean ez ezik, eskola inguruan ere badute zeresana eta zeregina gurasoek. Munduko hainbat tokitan egindako ikerketen arabera, gurasoak eta eskolako langileak elkarrekin aritzeak era guztietako emaitzak hobetzen ditu. Horregatik, bien arteko harremana eta elkarlana zaindu eta sustatu beharrekoak dira.

Ikastetxe bakoitzaren erronka hau izan behar da: gurasoen eta irakasleen artean harreman ona izatea. Harreman txarrak sortzen badira, arazoak ere izaten dira, eta horrek komunikazioa eta elkarlana zaildu egiten ditu. Batzuetan, familiak beldurra dio eskolari, eta, beste batzuetan, eskolak beldurra die hainbat familiari. Parte-hartzea eta elkarlana bidea izan daiteke hori guztia gainditzeko.

Bestalde, eskolak mugak ditu; heziketa-kontuetan ardura handiegia ematen zaio eskolari; beraz, irakasleei. Jakina da eskolak bakarrik ezin duela hezi. Izan ere, lehenago esan legez, familia da heziketaren ardatz nagusia.

Euskara dakiten gurasoek ikastetxean parte-hartze aktiboagoa izan dezakete, ikasleekin harreman zuzena badute; adibidez, eskolaz kanpoko jardueretan edo beste zenbait ekintzatan.

Euskara ez dakitenen inplikazioa bestelakoa izan daiteke. Alegia, kontzientzia linguistikoaren jabe izanik, seme-alabak euskara erabiltzera bultzatu ditzakete. Nola? Gurasoak ikastetxeko estamentu eraginkorra dela kontuan hartuta, ikastetxeak antolatzen dituen jardueretan parte hartuz edota proposatutako ekintzak bultzatuz. Izan ere, Txepetxek dioen bezala, motibazioa ezinbesteko baldintza da euskara erabiliko dela ziurtatzeko.

Horrez gain, gurasoek ikasle ohiak ere anima ditzakete, eskolarentzat probetxugarriak izan daitezen. Euskara jakin dakitenez, zenbait jardueratan begirale-lana egin dezakete, hitzaldiak eman, eta ikasleentzat eredu izan. Sarritan ikasle ohiak erabiltzen ez den altxor preziatua bihur daitezke.

## 5. Irakasleen eginbeharrak. Euskara familian bultzatzeko proposamenak, irakasleek gidatuta.

Orain arte, euskararen erabilera sustatzeko, gurasoen eta udalaren garrantziaz aritu izan gara. Atal honetan, irakasleen esparruaz mintzatuko gara, eta, bereziki, irakasleek gurasoen esparruan egin dezaketan lanaz. Izan ere, ikastetxearen inguruan berba egiten badugu, irakasleen gainean hitz egin behar dugu nahitaez, horiek baitira ikastetxearen ardatz.

Gogoratu behar dugu ikastetxea hizkuntza formala lantzeko lekua dela, familian eta eskolaz kanpoko ekintzetan hizkuntza ez-formala landuko da-eta.

Hortaz, irakasleak baditu hainbat eginkizun: hizkuntza irakatsi behar du, baina, irakatsi ez ezik, motibatu ere egin behar du, eta estrategiak eta tresnak maneiatu, umeei zein gazteek euskara erabil dezaten.

Bestalde, ez da ahaztu behar irakaslea ikasleentzako eredu dela, baita hizkuntzan ere. Irakasle guztiak dira hizkuntza-irakasle: haien arloa ematen dutenean, etengabe ari dira hizkuntza irakasten, eta garrantzitsua da horren kontzientzia izatea.



Irakasleen artean talde-eragilea egon behar da, aurrerapausoa non eman behar den jakiteko. Hauxe da talde horrek egin beharreko lana: koordinatu, zikloen baitako programazioa landu, prestakuntza-saioak antolatu (hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntzaren didaktika lantzeko), ikasleentzako ekintzak prestatu (motibazioa helburu dela) eta euskararen unibertsoa landu (euskal kultura, euskal literatura...).

Ikasleen euskararekiko jarrera eta jokabidetan eragiteko, irakasleek zer dinamika eta jarduera egin erabaki dezakete, ikastetxearen ezaugarrien eta aukeren arabera.

Gainera, irakasle taldeak familiekin harremana izan behar du: guraso koherenteen multzoa handitzen saiatu, lan egiteko prest daudenak erabili (batzordeetan lan egiteko: kirola...), edota ikasturtean zehar hainbat jarduera prestatu, gurasoek etxean egin dezaketena lana bideratzeko.

Guraso erdaldunei aurreiritziak uxatu beharko dizkiete, eta ziurtatu denei heltzen zaiela informazioa.

Bukatzeko, esan behar da ikastetxean badirela erabil daitezkeen zenbait baliabide:

- Artikuluak:

- AMONARRIZ, Kike: “Guraso erdaldunen kezka” *in* Argia 2015 (2005), 51-53.
- TELLETXEA, Xabier: “Gurasoak nola, haurrak hala” *in* Argia 1926 (2004), 54-55
- ”Familia eta eskola, bi instituzio konplexu: gurasoak eta eskola-harremana, gurasoentzako tresnak” *in* Hik Hasi 144 (2010), 8-15

Artikulu horiek une jakin batzuetan erabil daitezke, hala nola, ikasturte hasierako bileretan, banakako bileretan...

- Hitzaldiak: emaila irakasle bat izan daiteke, edo kanpoko hizlari bat. Badira hitzaldiak emateko dokumentazio egokia (ikus material osagarria: “Ume elebidunen gurasoentzako gidaliburua” (“Estrategias para niños bilingües” gaztelaniaz) eta Iñaki Arrutiren hitzaldiko aurkezpena .

- Webguneak:

- [www.guraso.com](http://www.guraso.com). Gurasoentzako albisteak, baliabideak (ipuinak, txisteak, jolasak, kanta, denborapasak...), aldizkaria, aisialdia, adituekin harremana... eskaintzen du webgune horrek.
- [www.ulibbarri.info](http://www.ulibbarri.info). Ulibarri programan, besteak beste, ekintza interesgarriak aurki daitezke, “Dokumentu lagungarriak” atalean.
- [www.ebete.org](http://www.ebete.org). Gomendioak eta prestakuntza irakasle zein gurasoentzat.

- Ikus-entzutekoak: “Bikote, eman beta euskarari” (guraso euskaldunentzako eta erdaldunentzako aholkuak, adituen bidez gurasoak hizkuntzaren arloan duten eraginaz jabetu daitezen) eta 2009ko Eskola Hiztun Bila jardunaldietako mahai-ingurua (Iñaki Pikabea, EHU; Iñaki Eizmendi, EBETE; Ana Eizagirre, BIGE).
- Katalogoak:
  - <http://www.katalogoa.org/>.



Euskarazko produktuen katalogoa, haurrek eta gaztetxoek euskaraz jolasteko, ikasteko, irakurtzeko eta gozatzeko aukera izan dezaten; baliagarria, baita irakasle zein gurasoentzat ere.

- <http://www.mondragon.edu/aldizkariak-revistas/irakur-gida/pdf/guia-literaria-2009>

Mondragon Unibertsitateko katalogoa: haur eta gazteentzako liburu interesgarriak eta oso interesgarriak adinaren arabera.

Baliabide horiek irakasleek kudeatuko dituzte, unean uneko beharizanen arabera, eta betiere plangintza adostuen ondoren bideratuta. Izan ere, guztion artean erabakitakoak inplikazio handiagoa dakar, eta zenbat eta gehiago inplikatu orduan eta emaitza hobeak lortuko dira.

## 6. Bibliografia

”Familia eta eskola, bi instituzio konplexu: gurasoak eta eskola-harremana; gurasoentzako tresnak” *in* Hik Hasi 144 (2010), 8-15

ARRUTI, Iñaki: “: No sabemos euskera. ¿Cómo podemos ayudar a nuestras hijas e hijos para que sean bilingües?” *in* PPT

FISHMAN, Joshua A: “Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan” *in* hitzaldi idatzia.